



2013KO AZAROAREN 28KO OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko azaroaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Migros Madrazo Rada eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maialen Aldasoro Aranburu eta Felix Urkola Iriarte ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko urriaren 31n egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretotik irten egiten da.

III.- KANPANDEGIKO BIRIBILGUNE LANEN 11. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-eko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 11. obra-egiaztagiria luzatu dute. Lanen 11. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa BERROGEI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMOTakoa (40.393,55 €) da. Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 11. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.



Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretora itzuli egiten da.

IV.- ITURGAITZAGAKO 14. L.E.AN 44 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO OBREN ESLEIPENAREN GAINEAN CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.K AURKEZTUTAKO GORA JOTZEKO ERREKURTSOA.-

Construcciones Amenabar S.A.k Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkuraren aurrean gorako errekurtsoa jarri du, Lazkao Lantzen S.A. udal elkartearen Administrazio Kontseiluak, 2013ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Iturgaitzagako 14 L.E.an 44 etxebizitzako bizitegi eraikina eraikitzeke esleipena Miguel Imaz S.A.ri egitea hartutako akordioaren aurka.

Errekurtsu honen aurrean txosten juridikoa egin da.

Halaber Kontratazio Mahaiak eta Lazkao Lantzen, S.A.ren Administrazio Kontseiluak, errekurtsu hau aztertu ondoren, beraiei dagozkien gaietan errekurtsua ezezteko proposamena onartu dute.

Guzti hau horrela, errekurtsua aztertu ondoren, eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenez, txosten juridikoan emandako arrazoietan oinarrituta, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaideen aldeko botuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

1.- 6 HJA –Iturgaitzaga–ko 14. L.E.an bizitegi-eraikina eraikitzeke obrak MIGUEL IMAZ SA merkataritza-sozietateari esleitzeko LAZKAO LANTZEN, SAKo Administrazio Kontseiluak 2013-10-01eko bileran hartutako erabakiaren aurka Construcciones Amenabar SAK jarritako gora jotzeko errekurtsua ezezea.

2.- Ez onartzea aurka egindako egintza gauzatzea bertan behera uzteko neurria.

V.- UDALEK EUSKARAREN ALDEKO HIZKUNTZA POLITIKAKO NEURRIAK HARTZEAREN ALDEKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"91/2013 Ebazpena, Gipuzkoako hainbat udalek, udal elkartek, eta Gipuzkoako Aldundiak administrazio kontratazioetarako hizkuntza irizpideak modu bateratuan ezartzeko dinamika babesteko (IX Legealdia)

(2013ko azaroaren 6ko Osoko Bilkuran onartua)

1. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Espainiako Gobernuko ordezkari Carlos Urquijori eskatzen diote erretira dezala, Gipuzkoako hainbat herrietako udalei, administrazio kontratazioetarako hizkuntza irizpideak direla eta, auzi-errekurtsuak aurkeztearen inguruan hartutako erabakia.
2. Gipuzkoako Batzar Nagusiek beren babes adierazten diete Gipuzkoako erakundeek abiatutako administrazio kontratuetan hizkuntza irizpideak ezartzeko printzipioei eta dinamikari.



3. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Espainiako Gobernuari eta bere ordezkariari eskatzen diete, euskal erakundeek hizkuntza-politikari dagokionean dituzten eskumenak eta erabaki ahalmenak errespetatu ditazatela.
4. Gipuzkoako Batzar Nagusiek aitortzen dituzte euskaraz bizi eta lan egitea ahalbidetuko digun hizkuntza-politika adosteko, erabakitzeko eta ezartzeko dagozkigun eskubidea eta eskumena.
5. Gipuzkoako Batzar Nagusiek nabarmentzen dute administrazioaren eskubidea eta egitekoa dela administrazio kontratatuetan hizkuntza irizpideak ezartzen, hala prestazioen hartzailea administrazioa denean, nola administrazioak enpresa pribatu baten esku jartzen duenean gizarteari ondasun eta zerbitzuak kudeatu eta emateko ardura, modu horretan ziurtatuz herritarrei administrazioarekin harremana autonomia erkidegoko hizkuntza ofizial bietako edozeinetan izateko eskubidea.
6. Gipuzkoako Batzar Nagusiek dei egiten diete udal eta instituzio guztiei euskararen aldeko hizkuntza politikako neurriak adostu, erabaki eta ezar ditzaten.
7. Gipuzkoako Batzar Nagusiek ebazpen honen berri Espainiar Gobernuko ordezkaria den Carlos Urquijo eta dagozkien erakundeei helaraziko diete."

Alkateak esaten du proposatzen dena gu ere testu honi atxikitzea dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du alde bozkatuko duela baina puntualizatu nahi duela 5. puntuan dioenaren arabera herritarrei administrazioarekin harremana bi hizkuntzatan izateko eskubidea mantendu behar zaiola eta hori gogorarazi nahi diola udalari.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du mozioaren alde bozkatuko dutela.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, mozioa onartzea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

